

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA. Hotelak. 2024ko abuztua

2024ko abuztuan, sarrerak % 3,6 eta gaualdiak % 1,6 igo ziren Euskal AEko hoteletan

Gelakako betetze-maila % 85,8koa izan zen eta prezioak % 5,8 igo ziren 2024ko abuztuan

2024ko abuztuan Euskal AEko hotel-establezimenduetako sarrerak % 3,6 gehitu dira eta gaualdiak % 1,6 urte artean, Eustatek landutako datuen arabera. 426.038 sarrera eta 911.049 gaualdi izan dira.

Sarreraren % 53,4 eta gaualdien % 50,4 atzeritarrek egin dituzte. Sarrerak % 6,5 eta gaualdiak % 5,5 igo dira.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako sarrerak, gaualdiak eta batez besteko egonaldia. Abuztua 2024

	Sarrerak		Gaualdiak		Batez-besteko egonaldia	
	2024/08	m/m-12 (%)	2024/08	m/m-12 (%)	2024/08	2023/08
EUSKAL AE	426.038	3,6	911.049	1,6	2,14	2,18
Estatukoak	198.578	0,4	451.466	-2,1	2,27	2,33
Atzeritarrak	227.460	6,5	459.583	5,5	2,02	2,04
Araba/Álava	63.344	7,7	127.134	7,4	2,01	2,01
Estatukoak	38.161	5,7	86.963	7,2	2,28	2,25
Atzeritarrak	25.183	10,8	40.171	7,7	1,60	1,64
Vitoria-Gasteiz	49.359	12,9	100.721	11,0	2,04	2,08
Bizkaia	188.780	-1,1	398.380	-2,5	2,11	2,14
Estatukoak	86.776	-5,7	193.097	-7,2	2,23	2,26
Atzeritarrak	102.004	3,3	205.283	2,3	2,01	2,03
Bilbao	125.543	-1,8	260.625	-3,3	2,08	2,11
Gipuzkoa	173.914	7,5	385.535	4,3	2,22	2,29
Estatukoak	73.641	5,7	171.406	-0,3	2,33	2,47
Atzeritarrak	100.273	8,9	214.129	8,3	2,14	2,15
Donostia / San Sebastian	105.068	7,4	249.636	8,1	2,38	2,36

M/m12 Behatutako azken hilabetearen izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2024ko Irailaren 19a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Arabak 63.344 sarrera eta 127.134 gaualdi erregistratu dira, aurreko urteko abuztuan baino % 7,7 eta % 7,4 gehiago. Gipuzkoan, sarrerak % 7,5 gehitu dira eta gaualdiak % 4,3; 173.914 sarrera eta 385.535 gaualdi izan dira guztira.

Bizkaian, aldiz, % 1,1 sarrera gutxiago izan dira (188.780 sarrera 2024ko abuztuan) eta 398.380 gaualdi (% 2,5 gutxiago aurreko urteko hilabete berean baino).

Hiriburuei dagokionez, sarreraren kopurua % 12,9 igo da Gasteizen eta % 7,4 Donostian. Bilbon, sarrerak % 1,8 murriztu dira. Era berean, aurreko urteko abuztuaren aldean, gaualdiak % 11,0 igo dira Gasteizen eta % 8,1 Donostian. Bestalde, Bilbon % 3,3 gaualdi gutxiago izan dira.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako batez besteko egonaldia, 2024ko abuztuan, 2,14 egunekoa izan da: aurreko urteko hil berean baino txikiagoa izan da, hori 2,18 izan baitzen. Batez besteko egonaldia bidaiariak gaua igarotzen duten establezimendu bakoitzean batez beste ematen duten egun kopuruari dagokio, eta ez Euskal AEn egiten duten egonaldiaren guztizko iraupenari.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako betetze-mailak eta errentagarritasuna. Abuztua 2024

	Betetze-mailak (%)				Errentagarritasuna			
	plazen arabera		gelaka		ADR (eurotan)		RevPAR (eurotan)	
	2024/08	p.p. *	2024/08	p.p. *	2024/08	m/m-12 (%)	2024/08	m/m-12 (%)
EUSKAL AE	78,8	-1,5	85,8	-1,6	143,81	5,8	123,45	3,8
Araba/Álava	74,6	0,8	83,8	-0,5	97,48	3,1	81,71	2,5
Vitoria-Gasteiz	75,6	1,6	86,7	-0,6	88,19	3,5	76,46	2,8
Bizkaia	76,9	-2,8	84,4	-2,8	126,97	8,2	107,18	4,7
Bilbao	81,7	-3,1	88,1	-3,2	138,00	6,8	121,63	3,1
Gipuzkoa	82,4	-0,9	88,1	-0,7	177,00	3,8	155,99	3,0
Donostia / San Sebastian	86,8	0,2	92,5	1,2	212,92	1,2	196,95	2,5

p.p.*= aurreko urteko hila bate berarekiko portzentaje zko puntu ko alde a

M/m12 Behatutako azken hila batean izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hila bate berarekin alderatuta (m-12)

Data 2024ko irailaren 19a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Euskal AE osoan, okupazio-maila % 78,8koa izan da abuztuan, plazen arabera neurtuta, eta % 85,8koa, gelen arabera neurtuta. 2024ko abuztuarekin alderatuta, beherakada 1,5 eta 1,6 ehuneko-puntu koa izan da, hurrenez hurren.

ADR edo eguneko batez besteko tarifa (logela biko eta bainugeladun ostate hartze ari ezarria) 143,8 euro koa izan da 2024ko abuztuan Euskal AEn, hau da, % 5,8ko igoera aurreko urteko abuztuarekin alderatuta. ADRa 177,0 eurotan kokatu da Gipuzkoan, 127,0 eurotan Bizkaian eta 97,5 eurotan Araban. Hiriburuka, aldeak handiagoak izan dira; izan ere, ADRa 212,9 euro a iritsi da Donostian, 138,0 euro a Bilbon eta 88,2 euro a Gasteizen.

2024ko abuztuan, gela eskuragarriko batez besteko diru-sarrerak 123,5 euro koak izan ziren Euskal AEko hotel-establezimenduetan, aurreko urteko hil berean baino % 3,8 handiagoak.

Abuztuan, Euskal AEko hiru hiriburuek jaiak edo aste nagusiak ospatzen dituzte. Gasteizko hotel-establezimenduetan, **Andre Maria Zuriaren jaietan** (abuztuaren 4tik 9ra) 9.181 sarrera eta 20.317 gaualdi zenbatu dira, aurreko urteko aldi berean erregistratutakoak baino % 0,7 eta % 7,3 gehiago. Era horretako establezimenduetako okupazio-maila % 78,0koa izan da aurtengo jaietan, plazen arabera neurtuta, eta % 90,8koa logelen arabera.

Donostiako Aste Nagusia abuztuaren 10etik 17ra bitartean ospatu da 2024an. Aldi horretan 27.258 sarrera eta 65.722 gaualdi erregistratu dira guztira. Aurreko urteko Aste Nagusiaren aldean, sarrerak (% 1,5) eta gaualdiak (% 5,3) igo egin dira. Okupazio-maila % 88,5koa izan da plazen arabera neurtuta, eta % 94,3koa logelen arabera neurtuta.

Azkenik, 2024ko abuztuaren 17an eta 25ean **Bilboko Aste Nagusia** ospatu da. Bertan, hiriko hotel-establezimenduetako sarrerak 36.054 izan dira eta gaualdiak 75.907. Aurreko urtean ikusitakoekin alderatuta, bi zifrak jaitsi egin dira: % 1,9 sarreraren kasuan eta % 2,4 gaualdien kasuan. Plazakako betetze-maila % 81,9koa izan da eta gelakako betetze-maila % 88,6koa.

Informazio-oharra

Hotelen ETHren 2024ko abuztuko erantzun-tasa % **90,9koa** izan da. Eustatek eskerrak eman dizkie inkesta honetan parte hartu duten establezimendu guztiei egindako ahaleginagatik.

Euskal Aeko turismoko datu-esploratzailea. Hotel-establezimenduak

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62